

BILBOKO HEZKUNTZAKO GRADUA

2022/2023 ikasturtea

**IKASLEAK SEXUALITATE ANITZEAN HEZTEKO GARRANTZIA
ERANSKINAK**

Egilea: Xabier Murillo Melgar

Zuzendaria: David Pastor Andres

Leioan, 2023ko ekainaren 7an

1. Eranskina *(Ikerketako parte-hartzaileentzako baimen informatua)*

Onespen-fitxa honen helburua parte-hartzaileei ikerketa honen izaera eta parte-hartzaile gisa betetzen duten rola argi eta garbi azaltzea da.

GrAL-era bideratutako ikerketa hau EHUKo Bilboko Hezkuntza Fakultateko Xabier Murillo izeneko ikaslea garatzen du. Azterlan honen helburua ikasleak sexu anitzean hezteko garrantziaz ikertzea da.

Ikerlan honetan parte hartzea onartzen baduzu, elkarrizketa batean galderak erantzutea eskatuko zaizu. Honek gutxi gorabehera zure denboraren 15 minutu hartuko ditu. Gainera, saio honetan hitz egindakoa grabatu egingo da, ikertzaileak gero zuk adierazitako ideiak transkriba ditzan.

Azterlan honetan parte hartzea borondatezkoa da erabat. Jasotako informazioa konfidentziala izango da, eta ez da erabiliko ikerketa honetakoak ez diren beste helburu batzuetarako. Galdetegiari eta elkarrizketari emandako erantzunak identifikazio-zenbaki bat erabiliz kodetuko dira, eta beraz, anonimoak izango dira. Elkarrizketak transkribatu ondoren, egindako grabazioak ezabatu egingo dira.

Proiektu honi buruzko zalantzarik baduzu, edozein unetan egin ditzakezu galderak proiektuan parte hartzen duzun bitartean. Era berean, edozein unetan ken daiteke proiektutik, horrek inola ere kalterik eragin gabe. Elkarrizketan zehar galderaren bat deserosoa iruditzen bazaizu, eskubidea duzu ikertzaileari jakinarazteko edo ez erantzuteko. Gainera, zure parte-hartzeari buruzko galderarik izanez gero, Xabier Murilloekin harremanetan jar zaitezke 673160508 telefonora deituta.

Eskerrik asko parte hartzeagatik.

Aurretik irakurritako oinarri guztiak onartzen ditut eta ikerketa honetan nire parte-hartzea baimenduz. Gainera, ulertzen dut baimen-fitxa honen kopia bat emango didatela, eta azterketa honen emaitzei buruzko informazioa eska dezakedala amaitu ondoren. Horretarako, Xabier Murilloekin harremanetan jar naiteke lehen aipatutako telefonora.

Egilearen izena:.....

Data:.....

Egilearen sinadura:

--	--	--

Partaidearen Izena

Partaidearen sinadura

Data

2. Eranskina (*Elkarrizketen galderak*)

1. Uste duzu gaur egun hezkuntzak sexuen eta generoen identitate bereizketak egiten jarraitzen duela? Nola uste duzu eragiten duela horrek ikasleengan?
2. Zure ustez, gaur egun modu egokian integratuta daude mota guztietako sexu-orientazioak eta genero- eta sexu-identitateak eskola esparruan?
3. Badakizu zer den curriculum ezkutua? Horrela bada, uste duzu honek eragin zuzena daukala sexu-, genero- identitate gaiarekin? Nola uste duzu kudeatu behar dela? (*Erantzuna ez bada, curriculum ezkutua zer den gainerik azaldu, gero bere usteak galdetzeko*).
4. Gai honen inguruko prestakuntza beharrezkoa da? Jaso al duzu inoiz? Zer-nola? zure ustez falta da eta prestakuntza falta horrek nola eragiten du?
5. Zer nolako papera daukate irakasleek honetan? Eta zein uste duzu izan behar dela?
6. Eta bestelako hezkuntza-eragileek? (adibidez familiak)? Eta zein uste duzu izan behar dela haien papera honetan eskolarekin lotuta?
7. Hezkuntzako lege-araudiek gai honen inguruan dituen proposamenak eta egindako aurrerapausoak ezagutzen dituzu? Horrela bada, azaldu ahal dituzu?
8. Hezkidetzaren planak ezagutzen dituzu? Zer nolako iritsia daukazu hauen inguruan? Zer nolako aldaketak egingo zenituzke hauek? Zerbait botatzen duzu faltan?
9. Nola bideratu daiteke errealitatea hau? Hezkidetzaren proposala dela uste duzu? Zergatik?
10. Zein beste faktore dira garrantzitsuak, edo eragina daukate prozesu honetan?

3. Eranskina (*Elkarrizketen transkribapena*)

3.1 Eranskina (*P1 transkribapena*)

MODERATZAILEA: Uste duzu gaur egun hezkuntzak sexuen eta generoen identitate bereizketak egiten jarraitzen dituela?

P1: Bai, guztiz adoz, azkenean inkontzienteki bai egiten dugu, hasten gara adibidez komunitatik, komunak dauz bereizita neska eta mutilen artean. Ez dugu jasotzen ere ez beste aukerarik, inter-sexualak direnak, transexualak... azkenean hori geratzen da oso kanpoan. Egia da, eskola honetan hasi garela lehenengo zikloan behintzat hori kentzen, kartelak kendu ditugu eta ikasleak sartu ahal dira nahi duten komunean, baina, gora zoazen heinean eta patioetan jarraitzen dute sexuen arabera bereizita komunak. Eta adibidez, taldeak egiterakoan, ikasleak nahasterakoan, beti kontuan hartzen da, ba hori, zenbat neska dauden eta zenbat mutil. Haien arteko harremanak bai kontutan hartzen dira, baina beti saiatzen da neska eta mutilen kopurua berdina izaten gela guztietan.

MODERATZAILEA: Eta nola uste duzu eragiten duela horrek ikasleengan?

P1: Ba inkontzienteki transmititzen diegula berdina, nahiz eta batzuetan agian hitz egin daudela pertsona, ba hori, transexualak edo genero fluidoak daukatenak, edo ez direnak definitzen ez neska eta mutil bezala, azkenean konturatu gabe bai transmititzen diegula normaltasun hori kaketzen artean dela neska edo mutila izatea.

MODERATZAILEA: Orduan, zure ustez gaur egun modu egokian integratuta daude mota guztietako sexu orientazioak eta genero- eta sexu- identitateak eskola esparruan?

P1: Bueno, erantzun laburra, ez, ez daude integratuta. Irakaslearen arabera, bai saiatzen garela kontu hauei buruz hitz egiten, baina ez da eskola moduan landu egiten den zerbait. Ez ditugu bez eskola moduan protokoloak eta horrelakoak honi buruz hitz egiteko, ez dauzkagu programaketak. Noizean behin, depende irakaslea eta depende egoera zein den, batzuetan bai lortzen ditugu hitzaldi desberdinak honi buruz hitz egiteko, baina oso gauza puntualak dira eta egunerokotasunean ez daude islatuta.

MODERATZAILEA: Eta uste duzu beharrezkoa dela?

P1: Bai, eta gehien bat hori, agian honekin sentsibilizatuta ez dauden irakasleengan oso garrantzitsua da. Azken batean, pixka bat kontzientea ba zara honen inguruan edo sentsibilitatea baldin badaukazu noizean behin gelan aprobetxatzen dituzu momentuak honi buruz hitz egiteko, eta ateratzen dituzu gai hauek egun desberdinetan. Baina, ez badaukazu hori buruan oso zaila da kontzienteki hau lantzea gelan ikasleekin.

MODERATZAILEA: Hortik abiatuz, badakizu zer den curriculum ezkutua?

P1: Bai, curriculum orokorretik kanpoan geratzen diren gauza guztiak, adibidez, moralala lantzea, gure gizartean dauden balore eta horrelako gauzak lantzea, nahi gabe transmititzen ditugun baloreak...

MODERATZAILEA: Bale, eta uste duzu honek eragin zuzena daukala sexu- eta genero-identitate gaiekin, ala ez?

P1: Bai, guztiz lotuta dago, hau da, eragin zuzena dauka. Ala ere, komentatu dugun bezala gure curriculum orokorrean honelako gaiak ez daude sartuta eta azkenean da guztiz dependiente, ba momentu horretan daukazun irakaslearen arabera, irakasle klaustroa... azkenean ba beno, komentatu duguna, zuk honi buruzko sentsibilitatea baldin badaukazue eta garrantzitsua iruditzen bazaizu honelako gaiak ateratzea, landu egiten dituzu klasean nahiz eta curriculumean ez egon markatuta landu behar dituzula. Baina bestela ez dira lantzen edo lantzen dira bakoitzaren balore edo moral horren arabera, batzuetan hau negatibo izanik. Irakasle batzuk pentsatu ahal dute benetan sexu identitatea bakarrik izan ahal dela hori edo orientazio sexuala izan ahal dela bakarrik heterosexuala, orduan, azkenean eragin zuzena dauka. Askotan ikusten ditugu horrelako gauzak klasean ez, "Ez hori nesken gauzak dira, edo mutilen gauzak dira" eta azkenean irakasle asko horrela pentsatzen dute orduan oso zaila da beste modu batean lantzea hori.

MODERATZAILEA: Eta nola uste duzu orduan kudeatu behar dela hori?

P1: Ba ez dakit orokorrean curriculum horretan sartuta egon beharko litzateke, nire ustez gauza horiek bai garrantzitsuak dira islatuta geratzeko, baina gutxienez, eskolak ere izatea bere curriculum hori zehaztuta. Hau da, aldez aurretik jakitea eskola honetan gai hauek nola

tratatzen direla, gure ikuspegia hau del eta horrela jarraituko dugula. Azkenean klasean niri gertatu zait noizbait, hitz egitea ikasleekin ez daudela ez neska ez mutilen gauzak, mutil bat makilatu ahal dela... eta horrelako gauzak. Eta gero azkenean errealitatea ez da hori, etxera bueltatzen dira makilatuta, eta mutila denez “que esos es de maricones” jarraian entzun dugu. Edo behin gertatu zitzaidan ume bat hasi zela negarrez gelan makilatu zirelako, pasatu zuen eguna super poxik, baina etxera joan baino lehen negarrez hasi zen, bere aita bronka botako ziolako begiak margotu zituelako klasean. Horregatik, horrelako gauzak garrantzitsua iruditzen zait, eskolak, bere curriculum horretan edo bere eskaintza horretan adieraztea, hau da, zuk matrikulatzen etortzen zarenean, gauza horiek edo balore horiek argi ustea. Eskola honetan adibidez argi usten da ez dela erlijiosoa, ostera, aldeztatik ba dakizu erlijioa ez dela landuko, ez ditugula balore horiek jarraitzen, ba gauza berdina, balore horien barruan bai garrantzitsua iruditzen zait gauza hauek islatuta agertzea.

MODERATZAILEA: Gai honen inguruko prestakuntza beharrezkoa dela uste duzu?

P1: Bai, oso oso beharrezkoa.

MODERATZAILEA: Eta zuk noizbait jaso al duzu?

P1: Unibertsitatean bai, baina oso gaintik lantzen ziren, nire garaian behintzat, espero gauzak aldatzen joatea. Baina gero gainontzeko formakuntza nire kabuz bilatu dut, ba beno, interesa daukadalako gai hauetan eta saiatzen naiz informazioa bilatzen, pertsona desberdinen iritsia ikusten behai, zela hobeto ahal dugun hezkuntza ikusteko egunero, baina formakuntza formal bat ez.

MODERATZAILEA: Orduan, zure ustez formakuntza hori falta da? Eta horrek zer nolako eragina duela uste duzu?

P1: Ba eragin zuzena dauka gero gure egunerokotasunean, azkenean oso anitzak gara, ikasleak oso anitzak dira, eta agian ikasturte hasieratik ez dakizu zelako egoera dagoen baina honelako gauzak azkenean egunerokotasunean sortzen dira, ateratzen dira eta askotan ez dakizu zelan erantzun. Horregatik, beti goaz atzetik. Eduki beharrean prestakuntza bat eta aldeztatik prestatu beharrean gauzak, beti goaz ba beno “ai esque bat batean kurtsu honetan dago ume bat transexuala dela” eta ala benga, guztiak korrika formakuntza bat

egitera, klasean zelan egin behar dugun ikusteko, eta kasu horretan kakotx artean ez dago hain txarto, denbora daukazulako ikasle transexual bat etorriko dela dakizulako, eta erantzun on bat edo behintzat egokia dena eman ahal izango diozulako. Baina, askotan gauza hauek ateratzen dira bat-batean, hau da, egun batetik bestera agian gai bat ateratzen duzu, hasten zara horretaz hitz egiten eta ume batek elkarbanatzen dizu zerbait, eta ez badakizu edo ez badekozu formakuntza hori ez dakizu zelan eman erantzun ona. Eta ez bakarrik ikasle batekin egoera bat sortzen denean, baizik eta alde zurretik guk bebabari planteatzeko ikasleekin zelako errealitatea dagoen, ez dela bakarrik hau edo bestea, baizik eta ikasleek bebabari aniztasun hori ikasi ahal izateko eta aberaskarria izateko haien zuntzat. Hau da, hasieratik planteatzeko, ze eskolak ez baditu planteatzen haien errealitatean gero familiarekin oso zaila da egoera hauek benetan agertzea, ez badekozu kasu konkretu bat familian, orduan oso zaila da haien ikustea benetan errealitate hori existitzen dela.

MODERATZAILEA: Komentatuarekin batera, zer nolako papera daukate irakasleek hitz egiten gauden honetan?

P1: Ba funtsezko papera dela gurea uste dut. Komentatu dugun bezala, askotan familietan egoera hauek ez dira agertzen, beraz ez da hitz egiten horri buruz, bai gertatzen da ba hori, “nire osabaren bikotea beste mutil bat da”, eta bueno honi buruz normaltasunez hitz egiten dugu etxean eta gai hau konkretuki ikaslearentzat oso ezaguna da eta normaltasunez ateratzen da. Baina gero, agian beste egoera batean aurkitzen dira ume horiek eta ez dakite, ez dute ezagutzen eta ez dakite nola tratatu, azkenean gure papera funtsezkoa da, ikasleei aukera emateko munduaren aniztasun hori ezagutzeko eta normaltasunez tratatzeko, azkenean eskolan pasatzen dituzte etxean baino ordu gehiago kurtsoan zehar, orduan ba beno hor potentzial handia dago. Orduan, ez badizkiegu guk gauza hauek planteatzen oso zaila da haien hurbileko ingurune horretan honi buruz hitz egitea.

MODERATZAILEA: Klaro, baina lehen esan duzuna, zuk irakasle bezala gauza bat transmititzen badiuzu ikasleari eta gero etxean kontrakoa transmititzen badiete hor agian bien arteko liskarra sor daiteke ez?

P1: Bai, liskarra egongo da seguru, baina, gutxienez ikasleei ematen diegu aukera beste ikuspuntu bat edukitzeko, eskolan ez badugu lantzen eta eskolan bakarrik jasotzen baduzu hori ez del anormala edo hori txarto dagoela, azkenean hor bai kondenatuta daude ikasleak

pentsatzera normaltasuna hori dela eta hortik kanpo dagoela txarra dela. Orduan eskolatik ikuspuntu desberdinak eskainiz gero, kritikotasun hori landu daiteke, eta etxean behai komentatu ahal izatea, argumentuak izatea edo esatea “ba beitu, ez benetan ba daude beste egoera batzuk eta beste normaltasun batzuk behai existitzen dira” eta beno ba azkenean eskolaren papera ez da soilik irakastea matematika eta zientziak, baizik eta gauza hauei buruz hitz egitea, niretzat behintzat askoz garrantzitsuagoa dena. Eta beno, esaten duzun bezala, kasu ia gehienetan kontrako iritsia egongo da etxean, baina gutxienez eskolan ondo lan egiten dugu eta gehien bat guztiok batera lan egiten badugu, ba beno, ikasleek beste ikuspuntu bat izan ahalko dute. Esan dugun moduan, benetan eskolan denak batera baldin ba goaz errazagoa da, baina klaro, irakasle batek kurtso batean gauza bat esaten ba du eta hurrengo kurtsoa irakaslearekin ez badute lantzen edo inkluso kontrakoa esaten badu, hor bai galtzen dugula asko. Horregatik garrantzi handia ematen diot ikastetxe bateko ikasle guztiek bide berdinetik joateari, behintzat ikasleak salbatzeko.

MODERATZAILEA: Eta zer beste hezkuntza eragile uste duzu garrantzia daukala prozesu honetan irakasleetatik aparte?

P1: Ba familiaz aparte, nire ustez behai bigarren foku garrantzitsuena dela, hau da, familia da lehenengoa eskolarekin. Azkenean, beti pentsatzen dugu dela familia-eskola kontu bat. Horregatik, nire ustez familiak formatzea be oso garrantzitsua da. Egia da, eskola honetan saiatzen garela familientzako formakuntza ematen, baina egiten direnean oso pertsona gutxi bertaratzen dira eta etortzen direnean beti izaten da, normalean, irakasleei gertatzen zaigun bezala, bakarrik etortzen zarela zure ingurunean edo kasuren bat badaukazu eta nahi baduzu jakin zelan hor konkretuki erantzuna eman. Baina oso zaila da hortik kanpo dauden familiak horrelako formakuntzetan aurkitzea. Baina bueno nire ustez garrantzitsua izango litzateke hor, eskola bezala fomentatzea formakuntzak familientzako, bateratzeko eskolako baloreekin. Aurretik komentatutakoa, lortzen badugu eskolak balore horiek argi ustea eta familiekin formakuntzak edo ez dira izan behar formakuntzak, izan ahal dira elkartzeko momentu bat bakoitzaren usteak komentatzeko, tipo “mahai biribila”, ez beti formakuntza bat baina agian gure artean espazio bat sortzea elkarriketarako eta komentatzeko. Horrela behai familiek sentituko dira integratuagoak eskola barruan haiek esaten dutena behai garrantzitsua dela ikusten dutelako, entzuterakoan besteak behai beste ikuspuntu batzuk ikusi ahal dituztelako... Eta beste alde batetik, erakundeen papera behai oso garrantzitsua dela uste dut, askotan udaletxeak materialak eta formakuntzak elkarbanatzen dituztelako eta oso garrantzitsua

iruditzen zait ezagutzea behai gure ingurunean dauzkagun erakundeak, ez ditugulako ezagutzen eta askotan formakuntzekin bezala, ezagutzen ditugulako berandu. Hau da, kasu bat daukagunean konkretua eta nahi dugunean hori landu bilatzen dugu erakunde bat eta hori etortzen da, baina aldez aurretik ez ditugu ezagutzen ze aukera ditugun guk joateko, haiek etortzeko, ikasleekin lan egiteko edo momentuan gertatzen den gauza bat agertzen denean, ba bueno, aldez aurretik jakiteko zer daukagun. Orduan ba hor, udaletxeak bai zabaltzen dizkigu formakuntzak baina arlo honen inguruan adibidez, oso gutxi ematen dira eta agian hezkuntza komunitatea osatzen dugun guztion arteko elkartasuna edo elkarlana garrantzitsua da hau aldez aurretik prestatzeko edo.

MODERATZAILEA: Eta gero adibidez, ikasleen berdinak, hau da, klase-kideak gehien bat nolako garrantzia dutela uste duzu?

P1: Garrantzi handiko faktorea dira, eta horregatik oso garrantzitsua da irakaslearen papera horren barruan, eta horregatik kontzientzia edo gutxienez sentsibilitatea izatea ezinbestekoa da. Askok ez daukate, eta komentario desagokiak agertzen dira askotan klasean, eta gehienetan ez dira zuk sortzen dituzun egoerak horren inguruan hitz egin nahi duzulako, baizik eta bat-batean ateratzen dira komentario bat entzuten duzulako eta zelako baloreak dituzunaren arabera batzuk agian egiten dute ez dutena entzun edo “tontakeriak ez esateko” erantzuten dute. Edo beste batzuk hartuko dute, eta klase osoaren artean komentatuko da, orduan hor bai laguntzen duzula iritsiak aldatzen, haien arteko elkarrizketa hori iritsiak azaltzeko nahiz eta sei urte eduki, guztiz gai direlako honi buruz hitz egiteko, baina klaro gure papera ezinbesteko da, naturalki sortzen diren elkarrizketa horiek ondo bideratzen jakiteko.

MODERATZAILEA: Hezkuntzako lege-araudiek gai honen inguruan dituen proposamenak eta egindako aurrerapausoak ezagutzen dituzu?

P1: Lege araudiekin eta hori ez, ez dut kontrolatzen askorik. Bai, azkenean ezagutzen dudala eusko jaurlaritzak badauzkala protokolo pilo bat sortuta, hori niretzat aurrerapauso bat da, adibidez, transexualitatea lantzeko protokolo bat dago, genero desberdintasunari buruzko beste protokolo bat... Hau da, ba daude gauzak baina ez ditugu ezagutzen, orduan komentatu duguna lehen, ez bazara aurkitzen egoera horretan askotan ez zara hasten bilatzen zer dagoen edo zer existitzen den, orduan nire ustez hobekuntza bat niretzat, ya ez dut hitz egingo beste

irakasleei buruz, nire hobekuntza bat bai da honi buruz gehiago ezagutzea, ze ez ba duzu ezagutzen azkenean ez da existitzen eta ez duzu ezta planteatzen daukazula aukera hori. Orduan, nire ustez garrantzitsua da hori, lege hauek ezagutzea, zer hobetu ahal den... jarraitzeko guk behai garatzen hori eta eskatzen, azkenean ez badakigu zer egiten den eta zer ez ezin dugu eskatu hobekuntzak, horregatik nire buruari hobekuntza bezala markatzen diot, garrantzitsua delako.

MODERATZAILEA: Hezkidetza planak ezagutzen dituzu?

P1: Daudela bai baina ez ditut ezagutzen, ez dakit zer komentatzen den, ez dugu kontrolatzen hau, baina kontrolatu beharko genuke aurrekoan bezala.

MODERATZAILEA: Orduan, honen inguruan formakuntza falta dagoela nabaria da ez?

P1: Bai, beharko genuke, beti da formakuntza falta, badakit bakoitzak bere erantzukizuna badaukala hau kontrolatzeko, baina bai direla gauzak gure egunerokotasunean ez ditugula kontrolatzen, ez da egiten formakuntza bat, ez da egiten jarraipen bat, orduan bai beharrezkoa ikusten dut honelako formakuntzak eta jarraipenak gehien bat egotea. Edo gutxienez komentatzea, ez dakigu ezta non ditugun dokumentuak gai honen inguruan, azkenean ez-ezagutza handia dago gai hauei buruz.

MODERATZAILEA: Nola bideratu daiteke errealitatea hau?

P1: Bueno, galdera zaila. Ba pixka bat aurretik komentatu duguna, alde batetik formakuntza beharrezkoa da, formakuntza jarraia gainera, ez bakarrik momentu puntualetan ematen direnak, urtero honi buruz gauzak ateratzea eta beti ikasten jarraitzea. Azkenean, gizartea oso azkar aldatzen da eta gu berarekin aldatu behar gara, danok, orokorrean gizartea baina hezkuntza gehien bat. Azken batean, guk nahi duguna da gure ikasleak bizi diren gizartean aktiboak eta kritikoak izatea, orduan, ez baditugu prestatzen haien momentuko errealitatean bizitzeko ez gaude lortzen ezer, ezin ditugu prestatu orain dela hamar urteko egoerarekin, gai honen inguruan gero eta informazio gehiago dagoelako, gauzak oso azkar aldatzen direlako. Sexualitatearen, generoaren eta identitatearen inguruan gero eta gauza gehiago daude ez ditugunak ezagutzen, orduan, oso garrantzitsua iruditzen zait eguneratuta egotea ikasleei haien benetako errealitate horretan aurkituko dituzten gauzei benetan erantzun egokia eman

ahal izateko. Eta bueno ba komentatu duguna, azkenean eskola bezala bai ikusten dut oso garrantzitsua gure baloreen barruan txertatuta egote gai hau, bai daukagula gure baloreen modelo bat, lantzen ditugula balore pilo bat, gaitasunak ikasleekin... saiatzeko haien garapena integrala izatea ez, ba garatzeko bai ikaskuntzan, bai emozioen aldetik, bai komunikazio aldetik... azkenean saiatzen gara hori lantzen, baina identitatearen barruan gure ambito bat dela lantzea hori, ikasleen identitatea garatzea, hau ezinezkoa da. Hau da, ezinezkoa da gai honi buruz ez hitz egitea identitatearekin gaudenean eta kanpoan geratzen da guztiz. Osea, bai daukagu gure baloreen hor oso zehaztuta, baina ez dugu sartzen gai hau, eta oso garrantzitsua da identitateari buruz hitz egiten gaudenean gehien bat. Gero bai, elkarbizitarako eta gauza guztietarako oso garrantzitsua da behai. Horregatik, eskola bezala bai eduki beharko genukeela eta hezkuntza komunitate osoan ba are gehiago, bai familiekin, bai erakundeekin, eskolarekin... Azkenean hezkuntza komunitate osoa osatzen dugun organo desberdinak batera joan beharko ginateke honekin. Eta bueno, pixkanaka-pixkanaka. Nik uste dut bai, aurrerapauso asko eman direla, baina oraindik daukagula pilo bat gauza egiteko, eta gehien bat danak batera joatea oso garrantzitsua iruditzen zait.

MODERATZAILEA: Eta hezkidetzaren honetarako proposa dela uste duzu?

P1: Azkenean, uste dut hezkidetzaren bakarrik abiapuntu bat dela, egokia baina bakarrik abiapuntu bat, gero hortik gehiago sakondu behar da. Eta lortu beharko genukeena izan beharko litzateke ba lehen hitz egin dugun curriculum ezkutu hori benetan izatea amankomuna guztientzako, azkenean ez gelditzeko depende ze irakasle daukazu edo depende ze familia daukazu balore batzuk edukitzea, baizik eta gizarte moduan danok bat egitea. Eta hori da gaur egun ikusten dudana erronka handiena, baina bueno posiblea. Askotan ez gara konturatzen pixkanaka-pixkanaka lantzen diren gauzak gero ikusten dela benetan erantzun onak ematen dituztela, gauzak aldatzen dituztela eta potentzial handia daukate, baina askotan ez dugu sinisten gure ikasleengan, ikusten dugunez txikiak direla, uste dugu ez direla gai gauzak ulertzeko, baina oso gai dira eta aldatzeko be.

3.2 Eranskina (P2 transkribapena)

MODERATZAILEA: Uste duzu gaur egun hezkuntzak sexuen- eta generoen- identitate bereizketak egiten jarraitzen duela, eta nola uste duzu eragiten duela horrek ikasleengan?

P2: Ba beno bai, egiten jarraitzen duela pentsatzen dut, eta ikasleengan estereotipoetan eragiten du. Eta pertsonalki hitz egiten, nik ez dut hau egiten, adibideak eta azalpenak ematerakoan ez dudalako ez genero ez sexuen bereizketarik egiten, hau da, saiatzen naiz ahalik eta inklusiboen egiten.

MODERATZAILEA: Orduan, gaur egun eskola esparruan mota guztietako sexu orientazioak eta genero- eta sexu- identitateak modu egokian integratuta daudela uste duzu?

P2: Ez, ez dago integratuta, ez daukagu ez denborarik ez irakasgairik hori sartzeko eta beno, nik bai horiekin erlazio daukaten gauzetaz hitz egiten dut, adibidez ba baloreetan, bideo bat jartzen dut eta haiekin horrelako gauzei buruz hitz egiten dut, komentatzen dut... ba hori, familiak nola diren azaltzen dut, ba bi ama edo bi aita dituzten umeak existitzen direla komentatzen dut... eta horrelako gauzak.

MODERATZAILEA: Eta gero, eskolan dauden liburuetan, fitxetan eta abar horrelako kasuak agertzen dira?

P2: Ez, momentuz ez ditut ikusi.

MODERATZAILEA: Pixka bat gaian gehiago sartzeko, badakizu zer den curriculum ezkutua?

P2: Bai.

MODERATZAILEA: Eta uste duzu honek eragin zuzena dauka sexu- eta genero- identitate gaiekin?

P2: Bai noski, bakoitzak bere usteak ditu, eta bere etika edo mora dauka eta bueno azkenean horrek eragina dauka umeetan, ezta? Zuk esaten badiozu umeari ama eta aita familia baten

kideak direla behin eta berriro, eta hori zure ustea bada, hori da umeari transmitituko diozuna, horregatik eragin zuzena dauka.

MODERATZAILEA: Eta nola uste duzu kudeatu behar dela hori?

P2: Pff, oso zaila da. Nire esperientziagatik, nik pertsonalki hitz egiten, uste dut ondo kudeatu ahal dudala, nire usteak oso inklusiboak direlako, baina klaro, beste pertsonen usteak oso desberdinak dira, orduan, bakoitzak jakin behar du nola kudeatu ezta?

MODERATZAILEA: Eta formakuntza adibidez, konponbide bat izan ahal da?

P2: Izan daiteke, baina azkenean eza dudana, bakoitzak bere modura lan egiten du eta nahiz eta formakuntzak izan eta gauza berriak ikasi agian pertsona hauek ez dute hori klasean aurrera eramango, edo horrelako gauzak kontuan izango klaseak ematen duten bitartean. Orduan, uste dut irtenbide on bat izan daitekeela, baina ez dakit irakasle guztiek kontuan hartuko zutenik.

MODERATZAILEA: Baina orduan, formakuntza berez beharrezkotzat hartzen duzu?

P2: Bai, noski.

MODERATZAILEA: Eta jaso ahal duzu noizbait?

P2: Bueno ba nik eskola honetan berria naizenez, momentuz ez dut honen inguruko formakuntzarik jaso, baina badaki esan zutela sexu- eta generoen- identitatearen inguruko formakuntza bat egongo zela, baina azkenean bertan bera hutsi zuten, eta momentuz, bertan behera utzi zuten.

MODERATZAILEA: Eta zure ustez, falta da? Eta horrela bada prestakuntza falta horrek nola eragiten du?

P2: Bai noski, prestakuntza falta da, eta nire ustez falta horrek ezjakintasuna eragiten du. Azkenean, jendeak ez daki nola jokatu sentu honetan, eta batzuetan horregatik edo beste gauza askorengatik ez dakigu nola aritu edo aurrera eraman gai hau.

MODERATZAILEA: Zer nolako papera daukate irakasleek honetan? Eta zein uste duzu izan behar dela?

P2: Uste dut gure papera oso garrantzitsua dela, guk umeen ispiluak garelako, eta horregatik, gure jokatzeko modua edo era oso inklusiboa izan behar da ikasleek gizarteko errealitatea ezagutzeko.

MODERATZAILEA: Eta bestelako hezkuntza eragileek, adibidez familiek?

P2: Nire ustez haien papera be super garrantzitsua da. Adibidez, nire esperientzia pertsonalagatik, nik homosexuala naiz eta txikia nintzenean eskolan ez nuen honi buruz ezer ez entzun ez ikasi, orduan, nire familia izan zen gai horrekin lagundu zidan eragilea. Horregatik, oso garrantzitsua da, gure heziketa etxetik hasten delako, eta horregatik familia eta eskolaren arteko lana beti batera joan behar da.

MODERATZAILEA: Bestalde, hezkuntzako lege-araudiek gai honen inguruan dituen proposamenak eta egindako aurrerapausoak ezagutzen dituzu?

P2: Bueno bai, badakit proposamen batzuk daudela eta aurrerapausoak egon direla eskerrak emanez. Baina modu sakonago batean ezagutzen dudana bakarria trans protokoloa da, baina momentuz nire klaseko errealitatean ez naizenez horrelako kasu batekin aurkitu ez dakit ezta zelakoa den, ezta nola aurrera eraman... baina bueno, uste dut lehen aipatu dudana moduan ezjakintasuna dagoela.

MODERATZAILEA: Eta hezkidetzaren planak ezagutzen dituzu?

P2: Bueno, badakit zer diren baina ez dakit askorik haiei buruz.

MODERATZAILEA: Eta dakizuna oinarritzat hartuz, zer nolako iritsia daukazu hauen inguruan?

P2: Ba bueno, ezinbestekoak direla uste dut, modu inklusiboan jokatzeko oso garrantzitsua baita. Gure eskolan adibidez, ume trans bat daukagu eta horregatik erabaki genuen komuneko

kartelak kentzea eta nahi duten komuna erabili ahal izatea, nesken eta mutilen arteko bereizketak egiten dituzten komunak ezabatuz.

MODERATZAILEA: Orduan, nola bideratu daiteke errealitatea hau? Eta uste duzu hezkidetzak aproposa dela honetarako?

P2: Ba bai, aproposa dela uste dut eta derrigorrezkoa izan behar dela ikusten dut. Eta bueno, hor dago eta parte hartu behar dugu bai eskola eta gizartea honetan, baina oraindik lan asko egin behar dela sumatzen dut, baina pixkanaka eta pausoz-pauso eskola inklusibo bat lortuko dugula espero dut.

3.3 Eranskina (P3 transkribapena)

MODERATZAILEA: Uste duzu gaur egun hezkuntzak sexuen eta generoen identitate bereizketak egiten jarraitzen duela?

P3: Bai, adibidez, bainugelak oraindik bananduta daude mutilen eta nesken artean ikastetxe gehienetan eta agian horiek bateratzea ideia ona izango litzateke, irakasleen bainugelak dauden moduan. Orduan, ikasleen bainugelekin gauza berdina egin daiteke. Bestalde, eskola batzuetan uniformeak eramaten jarraitzen dituzte eta hauek ez dira berdinak izaten neskentzat eta mutilentzat. Neskak gonarekin joaten dira normalean eta mutilak prakekin, gainera, neskak prakak eramateko daukaten aukera bakarra heziketa fisikoa daukatenean da. Orduan, hor ikusten da ere eta agian irakasleok nola usten ditugun besteak izaten aztertzea baita garrantzitsua izango litzateke, zeren eta agian mutilei usten diegu mugituagoak izaten, adibidez, mutil batek lekutik altxatzen bada normaltzat jo al duzu, baina neska batek egiten badu arrarotzat hartzen duzu, normalean pentsatzen baita neskak mutilak baino lasaiagoak direla, eta hori inkontzienteki barneratuta daukagu. Aipatutakoa ez da irakasle guztion gauza, baina pentsaera hauek batzuetan nahi gabe edo konturatu gabe barnean eramaten ditugu eta irakasleen libertatea mugatzen da nahi gabe.

MODERATZAILEA: Zure ustez, gaur egun modu egokian integratuta daude mota guztietako sexu-orientazioak eta genero- eta sexu-identitateak eskola esparruan?

P3: Hau ere, suposatzen da eskola motaren arabera desberdintasunak egon daitezkeela, batzuk inklusibitatea gehiago sustatuko dutelako, eta beste batzuk berriz, gutxiago. Adibidez, normalean laikoa bada, ez dago erlijioaren kontu hori, eta agian sexu-orientazioak eta aipatutakoa, badaude barneratuagoak, eta ulertzen dira gehiago, eta sexu-identitateekin gauza bera. Beraz, eskolaren arabera aldaketak egon daitezke, baina egia da normalean oraindik erabiltzen direla irain asko horrekin lotuta daudenak, haien artean “marikoi” edo “marimacho” edo “neskekin jolasten duzunez neska bat zara” edo holakoak gaur egun entzuten jarraitzen dira, beraz, oraindik ere, lan asko gelditzen da honen inguruan, nire ustez behintzat.

MODERATZAILEA: Badakizu zer den curriculum ezkutua?

P3: Bai, badakit zer den.

MODERATZAILEA: Eta, uste duzu honek eragin zuzena daukala sexu-, genero- identitate gaiarekin?

P3: Ba egia esanda bai, gure pentsatzeko modua ezin dugu gugandik banandu eta zaila da batzuetan pentsatzen duguna irakasteko moduan edo hitz egiterakoan ez sartzea. Orduan, batzuetan gertatzen dena da horrek nahi gabe gure ikasleengan eragin zuzena daukala, pentsatu gabe esaten ditugun gauza batzuk besteengan eragin zuzena izan dezake, adibidez, haien izaeran. Adibidez, gelan boluntarioak eskatzerakoan beti saiatzen da neska bat eta mutil bat izatea, eta kontuan izan behar dugu agian ikasleetako batek ez dela sentitzen ez neska ez mutila, edo genetikoki daukan sexuaren kontrakoa sentitzen da, oster, ez da inoiz boluntario bezala aterako? Gainera, kasu batzuk ez ditugu ezagutzen, ikasleek ez dutelako esaten edo oraindik argi ez dutelako edo dena dalakoa, baina hor aukerak murrizten zabilta. Beraz, nahi gabe eragin zuzenak izaten ditugu ikasleengan, egia da, hau ekiditea oso zaila dela, bakoitzaren pentsamenduak edo ohiturak direlako eta nahi gabe ateratzen direlako. Horregatik, oso garrantzitsua da bota aurretik pentsatzea.

MODERATZAILEA: Eta nola kudeatuko zenuke hori?

P3: Nola kudeatu? Zaila da hori, esan dudanez azken batean praktika da, gure buruaz hausnartzea. Adibidez, jo hau esan dut, eta orain ezin dut aldatu baina bueno hurrengorako buelta bat eman. Aurreko adibidearekin jarraituz, neska bat eta mutil bat eskatu beharrean, bi boluntario eskatu, sexua kontuan izan gabe, azken batean bi boluntario behar dituzulako, sexua ez du eraginik. Gero agian ateratzen direnen artean, zuk nahi baduzu neska eta mutil bat eskatu dizutelako, horiek aukeratu, baina ez kendu aukera bestei.

MODERATZAILEA: Gai honen inguruko prestakuntza beharrezkoa dela uste duzu?

P3: Joe, nik uste dut gai garrantzitsua dela eta noski beharrezkoa dela prestakuntza jasotzea.

MODERATZAILEA: Eta noizbait jaso al duzu horrelakorik?

P3: Ba, nire kabuz egia da ikastaroren bat egin dudala, gaiaren inguruan interesa dudanez bilatu dudalako, baina bestela egia da zaila dela honekiko prestakuntzarik jasotzea zaila dela.

MODERATZAILEA: Eta zure ustez, prestakuntza horren falta zer nolako eragina dauka gero errealitatean?

P3: Azken finean, esan duzunez errealitatea da, klasean baditugu ikasleak sexu orientazio desberdinak dituztenak, genero identitate desberdinak dituztenak... Gure bizitzan zehar kasu desberdinak topatuko ditugu eta horiei erantzun egokia eman behar diegu, eta ez badaukagu prestakuntzarik, ezin diegu erantzun egokia eman. Ostera, galduta egongo gara, eta horrek ere, ez bakarrik ikasle hauen notetan, haien klasean egoteko moduan, sentitzeko moduan... eragin zuzena izango du. Baina ez bakarrik haiengan, besteengan bebai, hauek prestatu behar dituzulako kasu guztiak normalak direla ulertzen eta hauek errespetatzen.

MODERATZAILEA: Orduan, gehiago sakonduz, zer nolako papera daukate irakasleek honetan? Eta zein uste duzu izan behar dela?

P3: Nik uste dut azkenengo urteetan gero eta ikasle gehiago hasi direnez beraien sexu-orientazioa eta genero- identitatea adierazten, hortik aurrera, irakasleok bai ikusi dutela behar bat honen inguruan gehiago jakiteko, honi erantzun bat ematea beharrezkoa dela sumatu dutelako. Zeren eta, normalean harramientarrik gabe aurkitu egin dira egoera hauen aurrean, zer egin jakin gabe, eta horregatik bai ikusi dut beraien aldetik jakiteko gogoia edo beraien lana ondo egiteko nahia dagoela ikusi dut, gehien bat, ikasleei laguntzeko eta umeari erantzun egokia emateko.

MODERATZAILEA: Eta bestelako eragileek zer nolako papera dute? (adibidez familiak)?

P3: Ba nik uste dut familiak ere oso garrantzitsuak direla, azken finean umeen ezinbesteko parte direlako. Eta bueno, batzuetan gerta daiteke familiek gaiarekin adoz ez egotea eta horrek zailduko ditu gauzak, irakaslea esandakoaren kontra egingo dutelako etxean segurazki. Orduan, umeak izango ditu hor bi bando oso markatuta, irakasleak esaten duenarekin batera klasean entzuten duena eta gurasoek esaten diotena, balantza bat sortuz ikasleek haien usteetan pisu handiagoa duen informazioa aukeratuz. Orduan, horretan ere kontuz ibili behar gara noraino sartu, beti gure iritsia ematen baina arazoak ekiditeko asko ez sartuz. Horregatik, garrantzitsua da beti argi izatea zer esaten dugun.

MODERATZAILEA: Eta zein uste duzu izan behar dela haien papera honetan eskolarekin lotuta?

P3: Nire ustez, familiei empatia izatea eskatu behar zaie eta ulertzen saiatzea ume guztion egoera eta horrekin batera honelako gaiak haien umeekin lantzea. Agian, gaur klasean lantzen da sexu orientazioa, eta heltzen direnean etxera haien zalantzak arazorik gabe adierazteko gai izatea, edo behintzat gaiaz modu natural batean hitz egiteko aukera izatea, eskola eta etxea modu koordinatu batean mugituz.

MODERATZAILEA: Hezkuntzako lege-araudiek gai honen inguruan dituen proposamenak eta egindako aurrerapausoak ezagutzen dituzu?

P3: Ez, egia esanda ez ditut ezagutzen.

MODERATZAILEA: Eta hezkidetzaren planak ezagutzen dituzu?

P3: Ba egia esanda, badakit zer diren, baina ez dut inoiz modu sakon batean irakurri, orduan ez dakit asko horri buruz.

MODERATZAILEA: Bale, eta dakizunaren inguruan, zer nolako iritsia daukazu?

P3: Ba bueno, egia da garrantzitsua dela berdintasunaren alde egitea, elkarbizitza on bat eta egoki bat sustatzea, errespetua lantzea... Beraz, plan bat egotea horri buruz ontzat hartzen dut, baina sakonago irakurri beharko nuke honi buruz gehiago esateko.

MODERATZAILEA: Eta zerbait botatzen duzu faltan modu orokor batean eskolan gai honen inguruan?

P3: Ba agian hezkidetzaren plana baldin badago esatea, "aizue hau dago eta irakurri hor gauza garrantzitsuak aurkitu ahal dituzuelako zuen arazoak konpontzeko" zeren eta nik badakit existitzen dela, baina duela gutxi jakin dut.

MODERATZAILEA: Orduan, nola bideratu daiteke errealitate hau? Eta hezkidetzaren proposala dela uste duzu?

P3: Bueno, hasteko nire ustez eta oinarri moduan, kontuan izan behar dugula pertsona eta ikasle bakoitza desberdina dela, beraz, izan ditzakeen beharrak edo nahiak desberdinak izan daitezkeela, horregatik, garrantzitsua iruditzen zait beti pertsona ororen iritsia kontuan izatea eta behar denean laguntza eskaintzea. Gure lana beti izango da klasean integratzea, inklusioa sustatzea eta guztiok existitzen diren egoera guztiak ulertzea eta errespetatzea. Batzuetan, agian gerta daiteke ikasle batek kontatu nahi izatea bere egoera klase osoaren aurrean, edo hori ez gertatzea eta berarentzat gorde nahi izatea. Ba bueno, erritmoak errespetatzea be ezinbestekoa da, iritsi eta nahiekin batera. Eta agian behar bada, landua ahal dugu gaia baina zeharka, hau da, bere izena justu esan gabe modu orokor batean gaia lantzea, gehien bat klasea kontzientziatzeko honi buruz, eta igual momentu batean berak eroso sentituko da klasearekin konpartitzeko, baina inoiz ez ditugu egoerak fortzatu behar, gero hor arazoak sortzen direlako. Familiarekin ere, harremanetan egon beharko gara, ikasleen bizitzan parte garrantzitsu bat direlako eta jakin behar dugulako familiaren harremana gaiarekin nolakoa den eta beti saiatu modu koordinatu batean lantzen.

MODERATZAILEA: Zein beste faktore hartzen dituzu garrantzitsutzat, edo eragina daukate prozesu honetan?

P3: Nire ustez, umeen adina ere oso garrantzitsua da, zeren eta, batzuetan pentsatzen dugu ikasle batzuk gazteegiak direla gauza batzuk ulertzeko, eta gero gehienetan harritzen gaituzte, guk baino askoz hobeto ulertzen eta errespetatzen baitituzte gauzak, besteei laguntza eskainiz. Horrek ere, erakusten digu zenbat eta goizago hasi gai batzuk jorratzen, gero eta hobeto izango dela, kritikotasuna txikitatik garatzeko eta honen inguruko aurreiritzi txarrak ekiditeko.

3.4 Eranskina (P4 transkribapena)

MODERATZAILEA: Uste duzu gaur egun hezkuntzak sexuen eta generoen identitate bereizketak egiten jarraitzen duela? Eta horrela bada, nola uste duzu eragiten duela horrek ikasleengan?

P4: Nik uste dut bai hezkuntzak sexuen eta generoen identitate bereizketak egiten jarraitzen duela zuk esan duzun moduan, bai, baina saiatzen hari dela heziketa prozesu horrek ez markatzen, baizik eta kontzientzia kritiko bat ematen ikasleei. Hala ere, uste dut gauden gizartean gaudela, nahi gabe zenbait balore, ideia... transmititzen ditugula eta ikasleek jaso egiten dutela informazio hori guztia. Gainera, kontuan hartu behar izan dugu hezkuntza mota desberdinak daudela, eta hezkuntza formaletik ematen duguna ez dela haien heziketa bakarra, baizik eta etxean hezkuntza informala jasotzen dutela, eta honetatik jasotzen dituztela hamaika mila balio, jarrera eta moldaera, beraz, eragin handia dauka ikasle horiengan. Etxean adibidez, ikusten badituzte jarrera normalizatuak genero ikuspegitik hitz eginda, gero haien beste bizitzako arlo desberdinetan aplikatuko dituzte. Bestalde, beste forma batez baldin bada, hori nahiz eta eskolan landu nola behar izango litzatekeen hoberena, ez dute hainbeste aplikatuko.

MODERATZAILEA: Zure ustez, gaur egun modu egokian integratuta daude mota guztietako sexu-orientazioak eta genero- eta sexu-identitateak eskola esparruan?

P4: Baietz eta ezetz esango nizuke. Baietz, ideologikoki gutxienez nire errealitatean eta nire egoeran, guztiok onartuta daukagulako, badaukagulako ere gure heziketa taldean adibidez sexu orientazio desberdinetako pertsonak. Baina nik uste dut jende gutxi dagoela ondino erreferente moduan eskola esparruan, oraindik kasu eta pertsonak ez daudela hain irekita, ez dela hainbeste hitz egiten edo ez dela hainbeste normalizatzen. Baizik eta tokatzen denean, ba hori, lantzen da. “Nik beitu, nola azaldu dudan kasu bat”, eta ez da kasua, da pertsona bat, izan litekeela trans, izan litekeela homosexuala, izan litekeela edozein dalakoa. Eta oraindik markatzen ditugu normalizatu beharrean, ez dagoelako hain hedatua nire ustez.

MODERATZAILEA: Eta nola normalizatuko zenuke hori?

P4: Ba, lehenik eta behin hitz egiten horri buruz, informazioa ematen, jendea kontzientziatzen azken finean guztiok pertsonak garela eta berdina dela, gustatzen bazaizu txokolatea esneduna edo txokolate beltza ez duzu kexarik ezta? Ba berdina.

MODERATZAILEA: Badakizu zer den curriculum ezkutua?

P4: Bueno, gutxi gora behera, kontzeptua ezaguna egiten zait.

MODERATZAILEA: Eta uste duzu honek eragin zuzena daukala sexu-, genero- identitate gaiarekin?

P4: Ezagututa pixkatxo bat zer den, ezin dut ezetz esan, argi dago baietz.

MODERATZAILEA: Nola uste duzu kudeatu behar dela hau?

P4: Hori beitu, arestian aipatutako galderen erantzunekin lotuta dago. Gure gizartean aldaketa izan behar dugu, curriculum ezkutua izan ere, badakigu dela nahi gabe transmititzen diren balio, jarrera, ideiak, pentsaerak... eta hori aldatzeko gizartea oinarritik aldatu behar dugu, bai gure kasuan eskolan heziketa prozesuan normalizatzen nola, ba irakasleek adibidez emozioak ditugula eta haiek bezala identifikatzen, kudeatzen. Eta beitu nik mutil bat naiz baina sentitzen naiz neska edo kontrako kasua, ba horiek ere haiei normalizatzen, ereduak ematen, erreferentziak sortzen... Horrela lortuko dugu. Bestalde, super garrantzitsua da ikasleek gertu dituzten pertsonekin adibideak jartzea, hau da, aspaldirako adibidea izan daiteke hau baina bueno: aitak erosketak egiten ditu eta amak ekartzen du dirua etxera. Horrela tradizionalki roll-ak aldatzen ditugu edo horrelako gauzak hurbiltzen ikasleei.

MODERATZAILEA: Gai honen inguruko prestakuntza beharrezkoa da?

P4: Bai, guztiz.

MODERATZAILEA: Eta noizbait jaso al duzu?

P4: Bai, pixka bat jaso izan dut, hezkidetzako proiektu batean sartuta egon nintzen eta hor jaso izan nuen bai.

MODERATZAILEA: Eta zure ustez falta da eta prestakuntza falta horrek nola eragiten du?

P4: Prestakuntza gabe askotan ez dugu burua adimena irekitzen eta gure ikuspegi mugatu batetik aztertzen dugu. Zera da, behin ikertuta, behin formakuntza jasota lehen ezta planteatzen ez zenituen ideiak izango dituzula buruan eta horiek askotan dira ezberdintasuna markatu egiten dutenak. Gainera, ere jakin behar dugu hemen nola, nire partez mutila, gizona naizenetik, nola botere egoera batetik aztertzen dudala eta ez naizela kontziente boterea eta pribilegioak ditudala behin ikasketa eta formakuntza hori jaso arte, eta hori oso oso garrantzitsua da ikusteko nola berdintasuna behar dugun, nola sexu eta genero identitateak afektatzen digun...

MODERATZAILEA: Zer nolako papera daukate irakasleek honetan? Eta zein uste duzu izan behar dela?

P4: Ba nik uste dut erlazioa daukala aurretik hitz egin dugunarekin. Hau da, gidak izan behar dira, erreferenteak, bakarrak ez, baina ikasleak txikiak direnez (nik esango dut lehenengo hezkuntzako irakaslea naizen moduan bale) behar dugula izan haientzako edo erreferente, edo gidariak haiek planteatzeko, ikasteko, kuriositatea izateko... eta etengabeko autokritika garatzeko, hau da, kritikoak izateko. Ez kritikoiak, baizik eta kontzientzia kritikoa sortzeko eta injustizien aurrean haiek borrokatu ahal izateko eta normalizatzeko pertsonen arteko berdintasuneko egoerak.

MODERATZAILEA: Eta bestelako hezkuntza-eragileek? (adibidez familiak)?

P4: Ba, oso funtsezko papera daukate, lehenengo hezkuntza edo heziketa etxetik jasotzen delako. Gero, nahiz eta eskolan balio, gaitasun eta abar desberdinak landu, lehenengo hezkuntza jasotzen dena etxekoa da. Beraz, oinarrizkoa da. Ala, hor nola kudeatu, ezin gara etxeetan sartu, baizik eta, etorkizunari begira eskoletan landu eta hezi baditugu pertsona horiek kritikoak izateko lehen esan dugun moduan, berdintasunean pentsatzen dutenak, normalizatuta daukatenak edozein sexu identitate eta egoera ... hor, behintzat nire esperantza da, horiek heztea balio eta ideei berdinetan haien seme-alabei. Ez dut uste aldatzeko forma asko gehiago daukagunik edo etxean eragin horiek jasotzeko. Proiektu komunitateetan

sartuta, interesa piztuta familietan... beno pixka bat igual eragin dezakegu, baina esandakoa. Hau da, azkenean aproposena izango litzateke eskola eta familiek bide berdinetik joatea.

MODERATZAILEA: Hezkuntzako lege-araudiek gai honen inguruan dituen proposamenak eta egindako aurrerapausoak ezagutzen dituzu?

P4: Pixka bat esango nuke, baina oinarrizko gauzak. Adibidez, frankismo garaian neskak eta mutilak banatzen ziren eta gaur egun ez klasez klase, hori izan da aurrerapauso bat eta araudiekin lotuta egon da. Gero, andereñoak ezkondu eta behar ziren klasea emateko edo horrelako lege zorrotza zeukaten behar eta gau egun ez da galdetzen, izan ere, ilegala da. Horiek dira guretzako antzinako lege batzuk. Gau egun, homosexualitatearen inguruan ere asko landu egin da eta orain lehen aipatu bezala, ilegala da galdetzea pertsona baten orientazioa, baina orain dela hamar urte kolokan jartzen zen ondino ea pertsona horiek al zuten klasea eman edo ez, eta ez dauka zerikusirik profesionaltasunarekin.

MODERATZAILEA: Hezkidetzaren planak ezagutzen dituzu?

P4: Batzuk, zaharkituta, orain dela zortzi urte edo egon nintzelako sartuta.

MODERATZAILEA: Eta zer nolako iritsia daukazu hauen inguruan?

P4: Ba lehen esandako moduan beharrezkoak direla, ikasleak hezteko lehenengo irakasleak formatuta egon behar direlako, eta guztiek aldi berean aurkitzea ere bai modu ona da. Beharrezkoak dira.

MODERATZAILEA: Eta zer nolako aldaketak egingo zenituzke hauetan?

P4: Errealitatea ajustatzea. Ez da berdina eskola batean dagoen errealitatea beste eskola batean dagoenarekin, eta orokorra plan horiekin egiten dena da “copy paste”, hartu berdina, bost zentro desberdinetara joan eta berdina egin, eta zentro bakoitzeko errealitate eta egoera ez dira berdinak. Ostera, horiek moldatu beharko litzateke.

MODERATZAILEA: Eta zerbait botatzen duzu faltan?

P4: Ba agian inbertsio gehiago formakuntzak egiteko eta denbora hori lantzeko.

MODERATZAILEA: Nola bideratu daiteke errealitatea hau?

P4: Errealitate hau normalizatzeko, finkatzeko, jartzeko... hainbat faktore hartu behar ditugu kontuan, haien artean, familia komunitatea, heziketa zentroa eta gizartea azken finean. Bakoitzean lan eginez, aurreratuz lortuko dugu berdintasunerako bidea bukatzea.

MODERATZAILEA: Eta horretarako hezkidetza aproposa dela uste duzu?

P4: Bai, baina hainbeste faktore kontuan hartzen baditugu aldatu beharrekoa da sistema, bizi garen sistema. Kontsumorako sistema honek bultzatzen gaitu etengabe horrelako distintzioak egitera, lehiatzera gure artean eta ez da heziketa komunitario bat bilatzen dena, azken finean bada borroka bat eta bada produzitu eta produktua atera eta gero kendu. Orduan nik uste dut kontsumismoaren erruz horrelako borroka partzialak lortzen direla, eta azkenean sortzen dena klase borroka bat da, ez bakarrik identitatetik baizik eta klase sozialetik. Hau da, guztiok langileak garen moduan lortu behar dugu aldatzea baina oinarritik.

3.5 Eranskina (P5 transkribapena)

MODERATZAILEA: Uste duzu gaur egun hezkuntzak sexuen eta generoen identitate bereizketak egiten jarraitzen duela?

P5: Nire ustez bai, generoen identitate bereizketak oraindik badaude. Adibidez, argi eta garbi ikus ditzakegu komunitan, oraindik ikastetxe gehienetan bi komunak desberdintzen dira, neskenak eta mutilenak. Beraz, hori izango litzateke adibide oso oso argia.

MODERATZAILEA: Eta, nola uste duzu eragiten duela horrek ikasleengan?

P5: Ba esango nizuke haien askatasunean eragiten duela, hau da, egiten ditugun bereizketa horien erruz ikasleek ezin dira modu libre batean adierazi ezta garatu. Batzuetan nahita egiten ez badugu ere, sexu edo genero bakoitzari jarrera batzuk esleitzen dizkiogu, eta oster, ez diegu ikasleei horietatik at joaten usten.

MODERATZAILEA: Zure ustez, gaur egun modu egokian integratuta daude mota guztietako sexu-orientazioak eta genero- eta sexu-identitateak eskola esparruan?

P5: Ondino nik uste dut ez dagoela integratuta. Adibidez, duela bi urte nire gelan bazegoen zakila zuen neska bat eta justu bosgarren mailan aldagelak erabiltzen hasi ziren eta nire galdera izan zen, “non gustatuko litzazuke aldatzea, nesken aldageletan ezta?”, eta berak esan zidan baietz. Baina, ikastetxe horretako zuzendariak esan zidan momentuz ezetz, beste irakasleen aldageletan aldatzeko gurasoek agian ez zeudelako prest horretarako. Eta nire ustez, momentu horretan ikasleek prest zeuden, eta horrek haien egunerokotasunean ez zituen arazorik eragiten. Beraz, zergatik ez genuen jokutzen naturaltasunez? Ba kasu horretan, familiek ez zeudelako prest, edo zuzendaritzakoek uste zutelako egoera ondino ez zegoela prestatuta edo.

MODERATZAILEA: Badakizu zer den curriculum ezkutua?

P5: Bai, noski.

MODERATZAILEA: Eta uste duzu honek eragin zuzena daukala sexu-, genero- identitate gaiarekin? Nola uste duzu kudeatu behar dela?

P5: Nire ustez, curriculum ezkutuak eragin itzela dauka ikasleengan, eta gehienetan ez diogu ematen behar duen garrantzia. Gainera, gure egunerokotasunean agertzen diren gaiak alde batera usten ditugu, edo gainetik komentatzen ditugu arazo bat egon bada edo, hori konpontzeko, baina, nik uste dut askotan modu sakonagoan landu behar ditugula. Azkenean hori, egunerokotasun horretan agertu diren gaiak garrantzizkoak direla uste dut, eta aprobetxatu behar ditugu agian momentu horiek gai horri buruz hausnarketa sakona egiteko. Horrela, eragin sakonagoa izango du ikasleengan eta haien espiritu kritikoa lantzeko aukera onak direla uste dut.

MODERATZAILEA: Gai honen inguruko prestakuntza beharrezkoa da?

P5: Bai, uste dut guztiz beharrezkoa izan beharko zela. Azkenean, egunerokotasunean dagoen kontu bat da, eta horretarako formakuntza bat beharrezkoa da, bizitza aldatzen doalako eta zoritzarrez kasu hauek ez dira normaltasunez tratatzen, eta batzuetan ez dakigu edo ez ditugu erantzun egokiak emateko tresnak kasu hauek behar den moduan aurrera eramateko. Orduan ba bai, momentuz prestakuntza behar dugula uste dut, baina urte batzuk pasata espero dut hau bizitzaren gauza normalak izatera pasatzera eta guztiok betaurreko berdinarekin alako kontuak ikustea. Baina bueno, horretarako lehenengo pausoa prestakuntza jasotzea dela uste dut.

MODERATZAILEA: Eta zuk jaso al duzu inoiz? Zer-nola?

P5: Nire kasuan prestakuntza jaso nuen baina, nire gelan kasu konkretu bat izan nuelako. Hau da, aipatu dudan bezala, kasu batekin aurkitu ginen eta ez genekien nola erantzun modu egoki batean, ostera, prestakuntza eskatu genuen eta jaso genuen. Baina bestela, ez nuke inoiz nire kontuan bilatu ezker horrelako formakuntzarik jasoko ziurrenik.

MODERATZAILEA: Zer nolako papera daukate irakasleek honetan? Eta zein uste duzu izan behar dela?

P5: Irakasleen papera funtsezkoa dela uste dut, baina ez bakarrik kasu hauetan, azkenean umeak hezten ari ditugu, orduan hiru zutabe super potente daude: irakasleak, ikasleak eta familiak. Horregatik faktore hauen arteko elkartasuna eta elkar eragina ezinbestekoa da.

MODERATZAILEA: Honekin jarraituz, zein da beste hezkuntza-eragileen papera? (adibidez familiaena)? Eta zein uste duzu izan behar dela haien papera honetan eskolarekin lotuta?

P5: Familien papera lehen esan dudan moduan funtsezkoa da bebai, eta nik uste dut garrantzitsuena dela komunikazio on bat ematea eskola eta familiaren artean.

MODERATZAILEA: Hezkuntzako lege-araudiek gai honen inguruan dituen proposamenak eta egindako aurrerapausoak ezagutzen dituzu? Horrela bada, azaldu ahal dituzu?

P5: Ez dut ehuneko ehunean ezagutzen. Baina dakidanarekin, hezkuntzako lege araudiak esaten duen moduan ikasleak entzun behar ditugu eta ahal den neurrian haien eskaerak kontuan hartu behar ditugu. Baina, ez dago guztiz, behintzat nire ustez, oso ondo azalduta. Gainera, oso irekia da. Azkenean ba hori, zuzendaritza taldeak zein irakasleek apur bat jokatu ahal dute haien ikuspuntura ezta? Horregatik uste dut aldaketa bat egin behar zela honen inguruan.

MODERATZAILEA: Hezkidetza planak ezagutzen dituzu?

P5: Bai, badakit hor daudela.

MODERATZAILEA: Eta zer nolako iritsia daukazu hauen inguruan?

P5: Egokiak direla uste dut, behintzat oinarriztat hartzeko, baina askotan ez dira aurrera eramaten eta oin jarri garelako garapen jasagarrietako hamazazpi helburu horiekin, ba bueno, bertan agertzen dira gai esanguratsuak eta espero dut bakarrik paper batean ez geratzea eta kontuan hartuta alako gaiei behar duten garrantzia ematea eta gelan lantzea eta hausnartzea hauei buruz.

MODERATZAILEA: Nola bideratu daiteke errealitatea hau?

P5: Ba nik uste dut jarraitzen dugula garrantzi askoz handiagoa ematen beti izan ditugun ikasgaiei (lengua, matematika ingelesa...) eta badirudi askoz garrantzitsua dela ba hori, erro karratuak egitea alako gaiak tratatzea baino. Baina nik uste dut guztiz kontrakoa izan behar dela. Azkenean, garrantzitsuena da bihotz oneko pertsonak izatea, eta ez matematikalari super on bat izatea. Horregatik, hau heztea izan beharko zen gure oinarria, baina bueno lan nahikotxo egin behar dugu ondino. Honekin batera, nire ustean, irakasleok dauden plan hauek gelara nola eramatea jasotzea beharrezkoa izango zela hau lortzeko.